

Emakumeen kirolari
buruzko aldizkari digitala
Revista digital sobre
deporte femenino

22

Iraila • Septiembre
2022



Arabako Urrezko Emakumeak Alavesas de Oro



“Eskubaloiak sortzen den
talde sentsazioagatik
harrapatzen zaitu”

Paula Gonzálezek DNAn darama eskubaloia. 15 urte daramatza kirol horri lotuta eta, batez ere, adiskiderik onenak eman dizkio. Gasteizen jaio zen 1992an, haur hezkuntzako eta gorputz hezkuntzako irakasle dihardu Argantzón ikastolan eta Eharialde klubeko lehen taldeko egungo kapitaina da; klub hori Arabako emakumezkoen eskubaloia erreferente nagusia da.



araba álava
foru aldundia diputación foral

Nola hasi zinen eskubaloian?

Mendebaldea institutuan hasi nintzen. Gogoan dut lehenengo egunetako batean Txomin etorri zela —Arabako eskubaloiairen munduan oso ezaguna da—, eta kirol horretan sartu gintuen. Zer zen jakin gabe hasi ginen probatzen. Mutilekin jolasten ginen. Nire lehen entrenamenduak jolastorduan hasi ziren, arratsalde batzuk ezarri genituen arte, saio zehatzagoak egiteko. Esan diezazuket ezustean hasi nintzela lagunekin. 15 urte igaro dira jada.

Zer du kirol horrek?

Atxiki egiten zaitu. Sortzen den talde sentsazioa eta lagunekin zaudela sentitzea. Horixe da funtsa. Eta, horrez gain, kirola asko gustatzen zait. Taldeko kirolean gehien landu beharreko gauzetako bat da talde gisa bat egitea, bai zelai barruan, bai kanpoan. Eskubaloiak hori transmititzen du eta oso erakargarria da. Abiapuntutzat hartuta atezain bat daukazula eta, laguntzen ez badiozu, oso salduta uzten duzula, gainerako jokalarien pentsamoldean laguntzeko eta nork bere lana egiteko konpromisoa dago, nork bere posizioa estaltzekoa, gainerakoei kalterik ez eragiteko. Adiskidetasun puntu hori oso oinarri garrantzitsua da.



Kadete kategorian sartu zinen Ehariialdea klubera. Zer du erakunde horrek?

Arabako emakumezkoen eskubaloian erreferentea da klub hori. Harrobi iturri handia da. Bere funtsa auzo klubak dela esaten dut beti. Galdu ezin dugun zerbait da. Kanpotik datozenei ateak irekitzen dizkiegu beti, beharrezkoak direlako; izan ere, harrobiak eta atzetik datozeneke ere denbora behar dute beren prestakuntzarako eta kategoria jakin batzuetara egokitzeko. Txomin erreferente handia da, eta hark eta beste batzuek harrobiko eskubaloiarekin lan handia egin dute, bai eta klubeko zuzendaritza osoak eta beste entrenatzaile batzuek ere. Atzetik, jende asko dago orgatik tira egiten duena klubak laguntzak jaso ditzan eta ikusgaitasuna izan dezan. Talde lan itzela da.

Duela urte batzuk, Ehariialdea eskubaloiko estatuko Zilarrezko Mailan egon zen. Sari bat izan zen? Gertatuko al da berri?

Ni urrezko urte haietan egon nintzen. Oso talde ona sortu zela esan behar dut. Senior mailara iritsi nintzenean, zilarrezko mailara igotzeko aukera ikusten hasi ginen. Eta geure merezimendu osoz lortu genuen. Eliteko lau urte horiez gozatu genuen, baina une batean ohartu ginen ezin geniola lehiaketa maila hain altuari eutsi, eta jaitsi egin ginen. Beti esaten dut hori zela klubaren prozesuaren eta hazkundearen beste puntu batean egoteko gertatu behar zitzaiguna. Belaunaldi aldaketa egon zen, eta lehen taldea berreraikitzeke lanean urte batzuk eman ondoren, Euskal Ligan ari gara lehian. Jaitsi ginelako sufritzetik kota handiagoen aukera ikustera igaro gara.

Eskubaloia kirol integratzailea al da?

Baietz esan daiteke, rol asko daudelako eta hainbat fisikorentzat lekua dagoelako. Nire esperientzia urteetan eta egon naizen taldeetan ez da inoiz egon eskubaloia jokalaria izateko premisarik. Bakoitzak bere tokia eta rola aurkitzen ditu taldearen barruan. Gerta daiteke gazte talde batean posizio batean aritzea eta seniorretara igotzean posizioz aldatzea. Nik beti jokatu izan dut pibot posizioan. Posizio gogorra da, etengabe borrokan aritu behar izaten da. Hortxe sentitzen naiz seguru eta neu naiz, nahiz eta urteak igaro ahala uste dudana jokalaria erasotzaile peto-petoa izatetik nire defentsa alderdia hobetzen saiatzera pasa naizela.

Hainbeste kirol dagoen hiri honetan, eskubaloiairen erreferente sentitzen zarete?

Zalantzarik gabe. Urte askotako lanaren emaitza ere bada. Egia da eskubaloia kirol minoritarioa dela Gasteizen, beste diziplina batzuek, hala nola futbolak edo saskibaloiak, jendetza berenganatzen baitute. Jendeak badu kirol kultura, badaki kirolari buruz. Ehariialdea klubean lan handia egin da eskubaloia federazioaren beraren eta komunikabideen laguntzarekin, horiek ere ikusgaitasuna ematen baitigute. Hezitzaile naizen aldetik, ikusten dut ikastetxeetan ere egin behar dugula lan hori.



Gerrarien eragina nabaritzen al da eskubaloian jokatu nahi duten neskengan?

Gerrariak ikusteak eta erreferente nagusitzat izateak badu eragina, ezinbestean. Baina neska asko gure kirolera hurbiltzen dira probatzeko. Batez ere, izena eman duen lagun talde bat badute. Kirola sozializatzeko modu bat ere bada. Ahoz ahokoak asko egiten du.

Eharialedko jokalarri batzuk elitean lehiatu dira, hala nola Patri Elorza, Londresen olinpikoa izan zena, edo Patri Aisa, aspalditik modu profesionalen Frantzian jokatzen duena.

Harro gaude hemen trebatu zirelako. Patri Elorza Félix lehendakariaren alaba da, eta erreferente handia izan da beti, duela urte batzuk erretiratu bazen ere. Ni orain selekzioan jokatzen duten jokalarrien aurka aritu izan naiz; Ainhoa Hernándezen aurka, esaterako. Ikusten dudak bakoitzean, oroitzapen asko ekartzen dizkit gogora.

Gipuzkoa edo Bizkaira begiratzean, nolabaiteko inbidia sanorik sentitzen al da, eskubaloiak besteak beste lehen mailako Bera Bera eta Zuazo taldeekin izan duen gorakada dela eta?

Batez ere, Gipuzkoan oso ondo lantzen da eskubaloia. Kirol honen erreferentzia da niretzat, eta Zarautz nabarmenduko nuke. Zaleak leialak dira eta kiroldegia betetzen dute. Han, jende guztiak eskubaloian jokatzen du, eta eskubaloian jokatzen ez duena futbolekin aritzen da. Beste

errealitate bat da. Eskubaloia herria da. Inbidia sana sentitzen dut, egia da. Bizkaian ere emakumezkoen talde asko daude. Araban, Eharialeda eta Corazonistas gara emakumezkoen eskubaloian lan egiten dugun klub bakoitza. Urte batzuk barru gehiago izango ahal gara! Badakit Amurrión badagoela harrobia, baina gero ez dute talde senior bat sortzen.

Zergatik gonbidatuko zenuke edozein neska to eskubaloian jolasten probatzera? Zer aurrak daiteke Eharialedko atearen beste aldean?
Hasteko, seguru asko lagun talde bat aurkituko duelako. Datorren oro hartzen duen taldeko kirola da. Konpromisoa baduzu eta ondo pasatu nahi baduzu, aukerarik onena da.

Zure bizitza pertsonalean, ez dago eskubaloia bakarrik, ezta?

Dantzetan aritzen naiz Algara Dantza Taldean, eta trikitixa ere jotzen dut. Denbora ateratzen dut egitea axola zaidan guztirako. Dantzak eta eskubaloia nire bi pasioak dira. ●

Eskubaloia- ren historia laburra

Max Heiser gorputz hezkuntzako irakasle alemaniarra jotzen da eskubaloia modernoaren asmatzaile. Berlingo bere ikasleekin berak asmatutako *torball* izeneko jolasean aritzen zen (ez nahastu itsuentzako gaur egungo *torball*arekin, zeina txilinak dituen pilota batekin jokatzen baita).

Heiserrek Siemens enpresako emakumezko langileen tarte librean betetzeko asmatu zuen jolas hura, baina arau argirik ez zuenez, azkenean ahaztu egin zen. Ideia ona zen; beraz, 1915ean, Leipzigo Gorpuz Hezkuntzako Eskola Normal Alemaneko Carl Schellenz irakasleak zenbait aldaketa egin zituen eta jokoa berrabiarazi zuen: futbol zelai batean jokatzen zen, pilota oinekin ukitu gabe.

1917ko urriaren 29an jokatu zuten lehenengo partida Berlinen, eta, azkenean, 1919an, Schellenzek *handball* ezagutzera eman zuen Europan; horregatik, historialari batzuek eskubaloia-
ren sortzaileak jotzen dute.

Zenbait herrialdetan, hala nola Uruguain, esaten da eskubaloia-
ren asmatzailea



Antonio Valera irakaslea izan zela, zeinak 1914an futbola, saskibaloia eta errugbia nahastu baitzituen, eta lehenengo partida Montevideon egin zela, 1916an.

Eskubaloia- ren bilakaera

Eskubaloia-
ren bilakaera nolakoa izan den ulertzeko, inflexio puntu batetik abiatu behar da, hain zuzen, 11 jokalarik jokatzen 7 jokalarik jokatzerara (gaur egungoa) igaro zenean.

Zazpiko eskubaloia oso kirol gaztea dela esan daiteke. 1938an hasi zen gaur egun bezala jokatzen, eta orduan

«Zazpiko eskubaloia oso kirol gaztea dela esan daiteke.»

antolatu ziren nazioarteko lehen lehiaketa ofizialak.

Baina ezin gara haren bilakaeran sartu, aldeztu zuteneko arbasoei buruz hitz egin gabe: aita, *hamaikako eskubaloia* eta aitona-
amonak, *hazena*, *handball* eta *torball*.

Hazena Txekiar Errepublikan oraindik egiten den jokoa da. Danimarkan, 1898an, Holger Nielsenek *handball* izeneko joko bat sartu zuen ikastetxeetan. Eta 1907an, joko horren eta lehiaketen antolaketa-
ren lehen araudia egin zuten.

1913an, Errusian, zelai txikian jokatzen zen, zazpi jokalariko taldeetan. 1915ean, Max Heidenek *torball* sortu zuen, *raffbold*, *volkerball* eta *korball*eko herri jokoen konbinazio bat.

Cari Schelenzek, 1919an, *handballa* sortu zuen. *Torballean* eta antzeko beste joko batzuetan oinarritu zen. Neska-mutilek futbol zelaian jokatzen zuten. Zona hamaika metrora zegoen, hamaika jokalaria aritzen ziren eta futbol edo boleiboleko baloiarekin jokatzen zen.

Jokoa bilakatuz joan zen, harik eta 1925ean nazioarteko lehen lehiaketa egin zen arte, Alemaniaren eta Austriaren artean (3-6). 1930ean emakumeek jokatu zuten, eta Alemaniak 5 eta 4 irabazi zuen.

1928an, Nazioarteko Federazioa eta lehen araudi ofiziala sortu ziren; 1934an, berriz, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) hamaikako eskubaloia inskribatzea erabaki zuen. Hala, Berlinen, 1936ko olinpiar joaketan, sei taldek hartu zuten parte.

«Zazpiko eskubaloiko lehen nazioarteko topaketa 1935ean egin zen, Suediaren eta Danimarkaren artean (18-12).»

Hamaikako eskubaloian aritzeko baldintza klimatikoak txarrak zirela eta, eskandinaviar herrialdeek zazpiko eskubaloia oinarriak garatu zituzten, *handballean* oinarrituta.

Zazpiko eskubaloiko lehen nazioarteko topaketa 1935ean egin zen, Suediaren eta Danimarkaren artean (18-12). Bitxia bada ere, 1938an, hamaikako eskubaloia eta zazpiko eskubaloia lehen munduko txapelketa egin zen.

Lehenengoan, hamar herrialdek hartu zuten parte, eta Alemania izan zen garaile. Bestalde, zazpiko eskubaloian lau talde baino ez ziren lehian aritu, eta han ere Alemaniak eskuratu zuen munduko titulua.

Aldi luze bat igaro zen, Bigarren Mundu Gerra zela eta, 1954an zazpiko eskubaloiko II. munduko txapelketa egin zen arte. Denbora luze horren ondorioz, zazpiko eskubaloia finkatu zen, eta luze eta zabal hedatu zen Europa iparraldean, erdialdean eta ekialdean; hamaikako eskubaloiak, aldiz, behera egin zuen pixkanaka.

1972an Munichen jokatu ziren olinpiar jokoen hogeigarren edizioa zela-eta inskribatu zuten "zazpiko" olinpiar kirol gisa.

Hedapena eta zabalkundea

Eskubaloia kirol bikaina da eskolako gorputz hezkuntzarako; azken urteotan asko hedatu da, eta gaur egun 35 milioi jokalaria baino gehiago ari dira eskubaloian 100 herrialdetan baino gehiagotan.


Espainian ere aipatzekoak dira kopuruak: 250.000 jokalaria federatu baino gehiago eta 2.200 klub inguru. Hori guztia, jakina, gorputz hezkuntzako asteroko eskoletan kirol horretara hurbiltzen diren milaka haur eta gazteak kontuan hartu gabe, oso bakanak baitira zelai bat, baloi bat eta

eskubaloiko bi ate ez dituzten ikastetxeak edo institutuak.

«Espainian ere aipatzekoak dira kopuruak: 250.000 jokalaria federatu baino gehiago eta 2.200 klub inguru.»

Eskubaloia gorabeherak zuzentzen dituen munduko erakunde gorena IHF (Nazioarteko Eskubaloia Federazioa) da, kirol amateurraren arauen pean. Gainera, IHFk dopinaren aurkako araudia, sexu kontrola eta nazioarteko lehiaketen antolaketa barnean hartzen ditu.

Taldeko edozein kiroletan bezala, herrialdeka eta klubka egiten diren lehiaketak bereizi behar dira. Lehenengoan artean, olinpiar jokoa eta munduko txapelketak nabarmentzen dira, gizonezkoen zein emakumezkoen dagokienez. Hauek dira, bestalde, klubaren lehiaketa garrantzitsuenak: txapelketa liga (Champions League), EHF kopa-txapelketa (Cupwinner Cup), EHF kopa eta Challenge CUP. ●



Non ikas eta goza dezakezu kirol honetaz?

Jar zaitez harremanetan
Arabako Eskubaloï Federazioarekin



**FEDERACIÓN ALAVESA
DE BALONMANO**

**ARABAKO ESKUBALOÏ
FEDERAZIOA**

KIROL ETXEA
Zerkabarren, 5
01001 Gasteiz Araba
945 13 12 36

info@falavabm.com
www.falavabm.com



dxtfem.com/alava/

**EL SITIO QUE TE INFORMA SOBRE
EL DEPORTE FEMENINO EN ARABA**

**ARABAKO NESKEEN KIROLARI
BURUZKO LEKU**



Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

araba álava
foru aldundia diputación foral



web.araba.eus/eu/kirola